



2021EKO EKAINAREN 19KO EBAZPENA

Vitoria-Gasteiz,

XXXXXX jaunak (NAN: [REDACTED]; jakinarazpenetarako helbidea: [REDACTED]) jarritako erreklamazioa aztertu du Gardentasunerako Foru Kontseilu honek.

AURREKARIAK

Lehena. 2021eko maiatzaren 26an, orain erreklamazioa egiten duenak informazio eskaera aurkeztu zuen, zeinean Arabako Foru Aldundiaren Erregistroan, 2000., 2005., 2010., 2015., 2019. edo 2020. urteetako informazioa eskatzen baitzuen hauei buruz:

- Bakarrik eta AFaren ardurapean dauden atzerritar adingabeen guztizko kopurua.
- Haien nazionalitateak, kopuru absolutuetan edo ehunekotan.
Arabako harrera zentroak.
- Haiei arreta emateko aurrekontua: kopuru osoa, zentroka, gastuetarako diru esleipena, etab. Xehatzea posible ez badago, arloaren aurrekontu osoa.
- Prestakuntza: jasotzen duten prestakuntza eta beste jarduera batzuk, zentro espezializatuak edo arauzko hezkuntza eta abar.
- Atxiloketen eta kondenen kopurua eta zein delitu edo arau-hausterengatik atxilotu/kondenatu dituzten. Era berean, berrerortzeak.
- Marokorekin sinatutako aldebiko akordioaren arabera egindako aberriratzeen kopurua (martxoaren 22ko BOE-2013-3140).
- Adin nagusiko egiten direnean izaten duten egoera edo estatusa: prozedurak, babesa, esleipen ekonomikoak edo jasotzen dituzten errentak (zer aurrekonturen kargura), zenbatekoa, harrerak eta zer zentroan edo zer erakundek eginda, prestakuntza... beharrezkoa denean.

Bigarrena. Ekainaren 28ko 97/2021 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak bidea eman zuen eskatutako informazioaren zati bat eskuratzeko.

Hirugarrena. 2021eko abuztuaren 12an, erreklamazio-idazki bat sartu zen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, eta, bertan, berriz ere eskatu ziren 2021eko maiatzean Adingabearen eta Gardentasunaren Legea zorrotz betez planteatu zituen datu guztiak.

OINARRI JURIDIKOAK

1. Erreklamatzailerak egindako eskaerari dagokionez, gaiaren mamiari heldu aurretik, aztertu behar da ea eskaerak betetzen dituen erreklamazio hori aurkezteko behar diren baldintzak, zeinak Gardentasunaren, Herritarren Parte-hartzearen eta Gobernu Onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru



Arauaren 35.5 artikulua arabera oinarritzko legerian ezarrita baitaude, hau da, Gardentasunaren, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bidearen eta Gobernu Onaren abenduaren 9ko 19/2013 Legean (hemendik aurrera, GIPEGOL).

2. Erreklamazioa aurkezteko epeaz den bezainbatean, GIPEGOLEk dio 24.2 artikuluan ezen erreklamazioa aurkezteko epea hilabete izango dela aurkatutako egintza jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, eta, hain zuzen, epe horri heldu zion erreklamatzaileak, Foru agindua 2021eko uztailaren 16an eman baitzen, eta [REDACTED]ren idazkia 2021eko abuztuaren 12an sartu baitzen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.
3. Bat etorritz 1/2017 Foru Arauaren 35.3 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, Gardentasunaren Foru Kontseiluak eskumena du foru sektore publikoko edozein erakunde hartutako ebazpenen aurka gardentasunaren arloan egiten diren erreklamazioak aztertzeke eta ebazteke, eta ebazpen horien artean dago [REDACTED] aurkaratutako foru agindua.
4. Behin egiaztaturik erreklamaturako erakundea Gardentasunaren 1/2017 Foru Arauaren mende dagoela, Gardentasunaren Foru Kontseiluaren eskumen subjektiboa eta erreklamaturakoaren legitimazioa, egiaztatu behar da ea baden egiaz informazio publikoaren eskaera bat; izan ere, 1/2017 Foru Arauaren eta otsailaren 21eko 5/2017 Dekretuaren arabera, kontseilu horrek ez du eskumenik bestelako auzirik aztertzeke.

Erreklamazioaren xedea informazio publikoa eskuratzeari buruzko esanbidezko ebazpena da, hau da, aipatutako 97/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez partez baietsi baitzen Espinosa jaunaren eskaera.

5. Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 18. artikulua arabera, informazio publikotzat jotzen da honako hau: «foru arau honetako 3. artikuluko subjektuek beren eginkizunetan sortu edo jaso eta euren esku dituzten edukiak eta dokumentuak, formatua edo euskarria gorabehera».

Beraz, eskabidea egiten den unean dagoeneko badagoen eta foru arauaren mende dagoen erakunde edo entitate batek eskuragarri duen informazioan oinarrituta egon behar dute informazio eskaerak, eta, gainera, informazioa erakunde edo entitate horrek haren eskumenak erabiliz egindakoa edo eskuraturakoa izan behar da.

Definizio hori ikusirik, eta kontuan hartuz Gizarte Politiken Sailak adierazi duela ez dauzkala eskaturako datu guztiak, haren eskuetan ez dagoen informazioa ez da existitzen eta, hortaz, ez dago behartuta hura bidaltzera.

6. [REDACTED] jaunak egindako eskaeran gatazka bat dago informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eta adingabeen pribatutasunerako eta intimitaterako eskubidearen artean. Gatazka egoera horretan, bi eskubideak bateratzeko tresna juridikoak bilatu behar dira, baina izaera desberdina dutela ahaztu gabe; izan ere, datu pertsonalak babesteko eskubidea oinarritzko eskubidetzat hartu den bitartean, informazioa eskuratzeko eskubidea Espainiako Konstituzioaren 105. b) artikuluari lotutako eskubide subjektibotzat hartzen da oraindik ere.

Hala, GIPEGOLEn 15. artikuluan (datu pertsonalen babesari buruzkoa) jasotako irizpideak ikusirik, Gizarte Zerbitzuen Sailak banakako haztapena egin zuen informazioa eskuratzeko eskubidearen eta adingabeen datu pertsonalen babeserako eskubidearen artean, zein eskubide nagusitu behar zen eta zein menperatu behar den erabakitzeke.

Bereziki babestutako datuen kasuan, non ez den beharrezkoa inolako haztapenik ere egitea, sarbidearekiko bateragarritasunari buruzko judizio bat egin zen, horrelako datuak zeudela egiaztatu zen (arrazaz-jatorria, arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak), informazioa



eskuratzea ahalbideratzen zuten baldintzak betetzen ote ziren aztertu zen eta ezezko ondorioa ateratu zen, lurralde historikoan adingabeentzako zentro gutxi daudenez gero, informazio hori emateak (disoziatuta eman arren) adingabeak identifikatzeko bide eman zezakeela iritzita.

Eskatutako gainerako datu pertsonalei dagokienez, eskubideen haztapen arrazoitua egin ondoren, ondorio bera ateratu zen prestakuntzari eta adin-nagusitasunera heldu ondoko egoerari buruzko datuekin.

Baina, horrez gainera, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, adingabe orok eskubidea du bere interes gorena baloratu eta lehentasunezko zatia jo dadin berari dagozkion ekintza eta erabaki guztietan, eremu publikoan nahiz pribatuan. Hala, lege hori aplikatuz eta erakunde publikoek adingabeei buruz hartzen dituzten neurriak hartzean, haien interes gorena nagusituko da tartean egon daitekeen beste edozein interes legitimoren gainetik.

Gainera, arrisku egoeran dauden haur eta gazteen babesaren eremu zehatzari dagokionez, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, bereziki adingabeen kalteberatasun egoera bereziagatik eta bereziki arrisku espedienteak osatzen dituzten datuen eta informazioen sentsibilitateagatik, 6. artikuluan berariaz hau xedatzen du: "Organismo, entitate eta erakunde publiko edo pribatuak isilean arituko dira haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko eginkizunean, eta behar beste neurri hartuko dituzte, intimitaterako eskubidea aplikatuz, beren esku duten informazioa isilean edukitze aldera eta informazio hori gordeta dagoen fitxategi eta erregistroak edozeinen agerian ez erabiltze aldera". Konfidentzialtasun betebeharra ezartzen da, eta betebehari hori ez betetzea arau-hauste larritzat tipifikatuta dago aipatutako 3/2005 Legearen 112. artikuluan.

Horregatik guztiagatik, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrei buruz haien identifikazioa ahalbideratuko luketen datuak eta informazioa ematea adingabearen interes gorenaren aurka legoke, zeina Arabako Foru Aldundiak babestu behar baitu, eta kalte egingo lioke adingabe atzerritarren erabateko gizarteratzeari.

Ondorioz, Gardentasun Kontseilu honen iritziz, Gizarte Zerbitzuen Sailak, tartean dauden eskubideak eta egitate eta lege elementu guztiak baloratu ondoren, balorazio judizio orekatu, mugatu eta proportziozkoa aplikatu zuen adingabeen interes gorena bermatzeari begira, eta eskura dituen datuetatik, identifikatzeko biderik ematen ez zutenak soilik jakinarazi zituen.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, hau hartu du:

EBAZPENA

Lehena. Azaltze zatian deskribatutako aurrekariak eta lege oinarriak kontuan hartuta, GIPEGOLen 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ezetsi egin behar da [REDACTED] k aurkeztutako erreklamazioa.

Bigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.